



[Hasiera](#) | [Etorri](#) | [Ezagutu](#) | [Bizi](#) | [Gida praktikoa](#)

[HOME](#) > [Ezagutu](#) > [Ezagutu historia](#) > [Santa Barbara gotorlekua](#)

SANTA BARBARA GOTORLEKUA



Santa Barbarako gotorlekuari buruzko lehen berriak 1793ko azaroaren 20koak dira. Egun horretako Udal aktan Probintziako Foru Aldundiak Hernaniko Udalari Santa Barbara ermita ingurua gotorleku bihurtzeko egin zion eskaera azaltzen da.

Ordutik, I. Guda Karlistan (1833-1839), II. Guda Karlistan (1872-1876) eta Guda Zibilean (1936) egon da okupaturik.

Lehenengo Guda Karlista amaitu zenean, Vergarako Hitzarmenaren ondoren (1839), gotorlekua bota egin zuten.


Bigarren Guda Karlistan berriro eraiki zuten, aurrekoaren forma eta zimenduen gainean. Hala ere, hainbat aldaketa jasan zituzten: kuartelen distribuzioa, gune karratu batzuk borobil antzera eraikitzea... Gainera, garai zailak zirenez, harri-horma arina eta mortero txarrekin eraiki zuten. Guda bukatu zenean soldatu gutxi batzuk mantendu zituzten bertan, baina ezinbestekoa ez zenez eta egoera txarrean zegoenez, 1891ko abuztuaren 25eko Errege Aginduari kasu eginaz gotorlekua hutsik geratu zen berriro ere.

Oraingoan, ordea, ez zuten bota eta horri esker iritsi dira arrasto batzuk gaur eguneraino.

ERMITA

Santa Barbarako ermita gotorlekua baino zaharragoa da. 1625ean jada hari buruzko lehen berriak azaltzen dira. Meza emateko ez ezik, herritarrei ekaitza edo trumoa zetorrela jakinarazteko ere erabili izan zen. 1769ko dokumentu batek dioenaren arabera, Santa Barbarako ermitako kanpai hotsak Hernaniko parroikiko kanpaiak jotzen hasteko seinale bat ziren, herritarrak ekaitzaren aurrean prest egon zitezela ohartarazteko.

1955ean gaur egun ezagutzen dugun ermita eraiki zen, eta Tradizioak Santa Barbarako tontorra ermitaren irudiarekin lotu du. Ordura arte, egun jatetxea dagoen lekuan kokaturik zegoen. Jatetxeko sarrerako arkua dugu garai bateko ermitatik geratzen den gauza bakarretarikoa.



Irudiak: ©2015, DigitalGlobe, European Space Imaging, Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco, Gobierno de Navarra-Instituto Geográfico Nacional de España

MADE WITH LOVE FROM JOOMLA.IT

PROPOSAMENAK



Pakete turistikoa: Hernani, erdi aroa, sagardoa

Erdi Aroko Hernani ezagutzeko aukera paregabea, baita sagardoaren kulturean murgiltzeko ere.

[Gehiago irakurri +](#)



Ibilbidea tren berdean

Tren berdea hartu eta herrian zehar paseo polit bat emateko aukera Hernaniko hainbat pasartetan oinarritutako grabazio bat entzunaz.

[Gehiago irakurri +](#)



Bisita gidatua hirigunean

Erdi Aroko Hernani ezagutu nahi? Gidaren azalpenak garai hartara eramango zaituzte: armariak, dorretxeak, garaiko gizartearen bitxikeriak...

[Gehiago irakurri +](#)

EZAGUTU HISTORIA

- HIRIGUNE HISTORIKOA
- SANTA BARBARA GOTORLEKUA
- COMÈTE SAREA | 1941-1944
- GERRA ZIBILA: FUSILATZEAK HERNANIN

EZAGUTU NATURA

- HERNANIKO IBILBIDE SAREA
- SANTA BARBARA MENDIA
- NERE BORDA PARKE BOTANIKOA
- SANTA BARBARA ESKALADA ESKOLA
- URUMEA IBAIA

EZAGUTU KULTURA

- SAGARDOA
- DONE JAKUE BIDEA
- AZERI DANTZA

BIZI EZAZU HERNANI

- PROPOSAMENAK
- URTEKO AGENDA

Turismo informazioa. Nafar kalea, 18 (Biteri). 20120 Hernani | Telefonoa: 943 33 70 28 | e-posta: [gurutze-a\[abildua\]hernani.net](mailto:gurutze-a[abildua]hernani.net)